


# Nola sartu datuak Emisioen Kontroleko poltsan eta nola bidali dagokion IKE txostena

2016



AIREA IKSeem

**EUISKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN ETA LURRALDE  
POLITIKA BAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
Y POLÍTICA TERRITORIAL

# Nola sartu datuak Emisioen Kontrolako poltsan eta nola bidali dagokion IKE txostena 2016

Data

2016ko apirila

Jabea

Eusko Jaurlaritza. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila



<b>1</b>	<b>GIDAREN HELBURUA .....</b>	<b>2</b>
<b>2</b>	<b>JARDUERARI BURUZKO INFORMAZIOA SARTZEA IKSEEM APLIKAZIOAN .....</b>	<b>3</b>
<b>3</b>	<b>“EMISIOEN KONTROLA” POLTSA.....</b>	<b>3</b>
3.1	“EMISIOEN KONTROLA” POLTSA: DATUAK GEHITZEA WEBGUNEAN .....	5
3.1.1	<i>Hautatu zer zentrori buruzko informazioa sartuko dugun.....</i>	<i>5</i>
3.1.2	<i>Beste txosten bateko datuak txertatzea .....</i>	<i>6</i>
3.1.3	<i>Zenbait errenkada zirriborro-egoeran dituen txosten bateko datuak txertatzea.....</i>	<i>8</i>
3.2	DATUAK SARTZEA .CSV FITXATEGIAREN BITARTEZ.....	9
3.3	DATUAK EXCEL-ERA ESPORTATU .....	12
<b>4</b>	<b>IKE TXOSTENA E - DMA ESKAERAREN BIDEZ BIDALTZEA .....</b>	<b>12</b>
<b>5</b>	<b>ERANSKINA: KUTSATZAILEEN KODEEN TAULA.....</b>	<b>15</b>

## 1 Gidaren helburua

Gida hau IKSeeM sistemaren<sup>1</sup> erabiltzaileei zuzenduta dago; hain zuzen ere, atmosferara egiten dituzten emisioen IKE txostena bidali behar duten erabiltzaileei.

Kanalizatutako fokuetan egindako neurketei buruzko informazioa duen IKE txostena bidaltzeko:

- Lehenik, sartu neurketen emaitzak AIREA moduluko “Emisioen Kontrola” poltsan, 3. puntuan adierazitakoari jarraikiz. Neurketak egiten dituzten IKEek egin behar dute hori.
- Horren ondoren, IKE txostena e-DMA Eskaera baten bidez bidaliko da (4. puntuan dago azalpena). Lan hori AKDJ instalazioek egingo dute Hasierako IKE txostena baldin bada, edo bestela, IKEek, aldizkako IKE txostena baldin bada.

Kanalizatutako fokuetan egindako neurketarik ez duten IKE txostenen kasuan, 4. puntuan zehaztutakoaren arabera joko daiteke zuzenean.

The screenshot shows the IKSeeM web interface. On the left is a navigation menu with various categories. Two items are highlighted with red boxes: 'e-DMA Eskaera' and 'Emisioen kontrola'. On the right, the 'Ongi etorriaren izenburua' (Welcome message) section is visible, containing a message in Spanish: 'Mesedez, hautatu menutik aukera bat. PKI sistema egun honetan ezarriko da: 01/01/2018.' Below this is a 'Mensaje del Dia [eu]' section which currently displays 'No hay Mensaje del dia [eu]'. The footer of the page reads 'Lege-oharra-Pribatutasuna'.

<sup>1</sup> IKSeeM sistema: Ingurumenari buruzko informazioa modu integratuz kudeatzeko Sistema, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailarena.

## 2 Jarduerari buruzko informazioa sartzea IKSeeM aplikazioan

ILEek konfinatutako fokuetan egindako neurketetako emaitzak sartu behar dituzte. Alabaina, instalazioak honako zeregin hauek egin behar izango ditu aldez aurretik:

- a) AIREA moduluko JARDUERAK, FOKUAK eta AZP eremuetan beharrezkoa den informazioa sartzea. Bi gida hauetakoren bat kontsulta daiteke informazio hori nola sartu/aldatu/zuzendu jakiteko, behar izanez gero:
  - Nola eskatu AKDJ baimena
  - Nola egin AKDJ jakinarazpena.
- b) Neurketa egin duen IKEari baimena ematea instalazioaren izenean informazioa aurkezteko. Hartara, IKEak –bere IZENPE ziurtagiriarekin– instalazioaren beraren sisteman sartzeko aukera izango du. "Ingurumenari buruzko izapide elektronikoen Gida"-ko "Nola eman/aldatu/deuseztatu ordezkari-tza-baimena EGIA bati" puntuan azaltzen da nola egin urrats hori.

## 3 “Emisioen Kontrola” poltsa

Pantaila honetan, egindako emisio-kontrolen emaitzak bistara daitezke, datuak gehitu (3.1 puntua), datuak .csv fitxategi baten bidez inportatu (3.2 puntua) edo datuak Excel batera deskargatu (3.3 puntua).

Pantailan bi iragazki agertzen dira, datuak errazago aurkitzeko (IKEaren arabera edo Txostenaren erreferentziaren arabera iragazita); halaber, “Bilatu” tresna ere badago: taula osoan bilatu nahi den hitza edo zenbakia idatziz gero, elementu hori duten errenkadak agertuko zaizkigu.

Datu-errenkada hori honako “Egoera” hauetan egongo da:

- “Aurkeztuta”, dokumentua administrazioan aurkeztu baldin bada (pdf ikonoaren bitartez txosten osoa zabalduko da).
- “Zirriborroa”, datuak sartu bai, baina txostena administrazioa oraindik bidali ez bada.

**Zentroko Emisioen Kontrola**  
Zentroko Emisioen Kontrol Zerrenda

Bilatu:

Fokua	Kutsatzailea	Betetzen du	Med1	Med2	Med3	Unitatea	Emaria (Nm3/h)	Emari masikoa (kg/h)	Orduak, urteko	Urtea	ECA	Txosten Erreferentzia	Egoera
0100031904-2	PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	Bai	15	15	15	mg/Nm3	15000	12	1500	2015	ATISAE	2015/15	Presentado [eu]
0100031904-1	PARTÍCULAS SÓLIDAS INERTES	Bai	50	51	52	ppm	0	0		2016	SFG	SFG-02-2016	Borrador [eu]
0100031904-1	OXIDOS DE NITROGENO	Bai	200	200		ppm	0,0001	0,0001	2	2016	SFG	SFG-02-2016	Borrador [eu]
0100031904-2	PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	Bai	50	50	50	mg/Nm3	1	1	1	2016	SFG	SFG-02-2016	Borrador [eu]
0100031904-2	PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	Bai	15	15	15	mg/Nm3	1500	15	1500	2015	SFG	SFG-01-2016	Presentado [eu]
0100031904-2	PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	Bai	2	2	2	mg/Nm3	2000	2	200	2015	SFG	SFG-01-2016	Presentado [eu]
0100031904-1	PARTÍCULAS SÓLIDAS INERTES	Bai	125	200	25	ppm	256	0,3	152	2014	SFG	SFG-2014-00256	Borrador [eu]
0100031904-1	PARTÍCULAS SÓLIDAS INERTES	Ez	150	269		ppm	256	0,1	152	2014	SFG	SFG-2014-00256	Borrador [eu]
0100031904-1	OXIDOS DE AZUFRE	Bai	15	200	190		2350	2	1547	2015	SFG	SFG-2015-12	Borrador [eu]

Aurrekoa 1 Hurrengoa

[Datuak Inportatu](#)
[Excel-era esportatu](#)
[Txertatu datuak](#)

**Irten**

Pantaila honetan informazio asko agertzen denez, alboko menuaren tamaina murriztu/leheneratu egin daiteke honako komando honen bitartez:

- >> Erakundeak eta zentroak
- >> Mantentze orokorrak
- >> Segurtasuna
- >> e-DMA
- >> HeA Zirkuituak
- >> HA Zirkuituak
- >> BH Monitorea
- >> Procedimientos Administrativos
- >> euAnalíticas
- >> Emisio Masikoak
- >> e-environment
- >> Box Dokumentala
- >> Aireak

Poltsa horretan datuak sartzeko bi aukera daude:

- Aplikazioan zentro bat hautatu eta datuak poltsan bertan sartzea.
- .csv formatuko fitxategi bat prestatzea txantilo jakin bati jarraiki, hainbat zentrotako informazioa batera "inportatzeko".

Lehen ere esan dugunez, neurketak egiten dituen IKE batek sartu behar ditu datuak poltsa honetan. Jarraian, aukera bakoitzean datuak nola sartu zehaztuko dugu.

### 3.1 "Emisioen Kontrola" poltsa: Datuak gehitzea webgunean

Datuak zuzenean "Emisioen Kontrola" poltsan sartzea.

#### 3.1.1 Hautatu zer zentrori buruzko informazioa sartuko dugun

Hona hemen bidea: AIREA > AKDJ > Zentroko poltsak > Emisioen kontrola. Ezer hautatu gabe, "Bilatu" markatzen badugu, erabiltzen ari garen ziurtagiriarekin baimenduta ditugun zentro guztiak agertuko zaizkigu.

Zentroa edo zentroak hautatu behar ditugu, horiei buruz informazioa sartu nahi badugu, eta gero, "Zerrenda egiaztatu".

The screenshot shows the 'Zentroak' (Centers) page in the application. The left sidebar contains a navigation menu with 'Emisioen kontrola' selected. The main content area shows a table of centers with the following data:

	NIMA	Sozietatearen izena	Izena	IFK	Herriidea	Probintzia	Udalerria
<input checked="" type="checkbox"/>	0100031904	Corpprivado_siete s.a.	CENTRO DE PRUEBAS_SFG	A77223345	España	Araba	Zuia
<input checked="" type="checkbox"/>	0100031906	Corpprivado_siete s.a.	Segundo centro de pruebas	A77223345	España	Araba	Ayala/Aiara I.
<input checked="" type="checkbox"/>	0100031764	Entidaddos s.a.	prueba	B95399473	España	Araba	Vitoria-Gasteiz

A 'Zerrenda egiaztatu' button is located at the bottom right of the table area.

Hortik aurrera, AIREA ataletan barrena nabiga dezakegu zentroaren hautaketari eutsita; goiko aldean agertuko da. Zentro batetik bestera aldatu nahi badugu bigarrenaren

datuak kudeatzeko, zentroaren sozietatearen izenaren gainean klik egin beharko dugu (urdinez).

Noiznahi egin ahal izango dugu beste iragazki bat, beste zentro bat hautatzeko:

IKS-eeM hasiera eu | es Laguntza | Kontaktatu | Irten

Erabiltzaile Desarrollo Prueba, Corpprivadosiete, estás en : Airea > AKD1 > Zentroko poltsak > RD100/2011 jarduerak > Alta

Erakundeak eta zentroak

- » Mantentze orokorrak
- » Segurtasuna
- » e-DMA
- » HeA Zirkuituak
- » HA Zirkuituak
- » BH Monitorea
- » Procedimientos Administrativos
- » euAnalíticas
- » Emisio Masikoak
- » e-environment
- » Box Dokumentala
- » Airea

**Aukeratutako zentroak**

2 elementuak bilatua(k), elementuak guztiak erakusten.

1 orri

NIMA	Sozietatearen izena	Izena	IFK	Herriadeca	Probintzia	Udalerria	Helbidea
0100031904	Corpprivado_siete s.a.	CENTRO DE PRUEBAS_SFG	A77223345	España	Araba	Zuia	KALE NAGUSIA
0100031764	Entidaddos s.a.	prueba	B95399473	España	Araba	Vitoria-Gasteiz	Donostia-San sebastian

**Zentro hautatua**

Erakunde A77223345 - Corpprivado\_siete s.a.  
Zentroa 0100031904 - CENTRO DE PRUEBAS\_SFG

### 3.1.2 Beste txosten bateko datuak txertatzea

**Zentroko Emisioen Kontrola**

Zentroko Emisioen Kontrol Zerrenda

Bilatu:

Fokua	Kutsatzailea	Betetzen du	Med1	Med2	Med3	Unitatea	Emaria (Nm3/h)	Emari masikoa (kg/h)	Orduak, urteko	Urtea	ECA	Txosten Erreferentzia	Egoera
0100031904-2	PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	Bai	15	15	15	mg/Nm3	15000	12	1500	2015	ATISAE	2015/15	Presentado [eu]
0100031904-1	PARTÍCULAS SÓLIDAS INERTES	Bai	50	51	52	ppm	0	0		2016	SFG	SFG-02-2016	Borrador [eu]
0100031904-1	OXIDOS DE NITROGENO	Bai	200	200		ppm	0,0001	0,0001	2	2016	SFG	SFG-02-2016	Borrador [eu]
0100031904-2	PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	Bai	50	50	50	mg/Nm3	1	1	1	2016	SFG	SFG-02-2016	Borrador [eu]
0100031904-2	PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	Bai	15	15	15	mg/Nm3	1500	15	1500	2015	SFG	SFG-01-2016	Presentado [eu]
0100031904-2	PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	Bai	2	2	2	mg/Nm3	2000	2	200	2015	SFG	SFG-01-2016	Presentado [eu]
0100031904-1	PARTÍCULAS SÓLIDAS INERTES	Bai	125	200	25	ppm	256	0,3	152	2014	SFG	SFG-2014-00256	Borrador [eu]
0100031904-1	PARTÍCULAS SÓLIDAS INERTES	Ez	150	269		ppm	256	0,1	152	2014	SFG	SFG-2014-00256	Borrador [eu]
0100031904-1	OXIDOS DE AZUFRE	Bai	15	200	190		2350	2	1547	2015	SFG	SFG-2015-12	Borrador [eu]

Aurrekoa 1 Hurrengoa

Txertatu datuak botoia: taula editagarri bihurtzen du, datuak txertatu ahal izateko



“Txertatu datuak” botoiaren gainean klik egindakoan, taula formatu editagarria aldatuko da, eta datuak bete ahal izango ditugu. “Atmosferaren Zaintza Plana” poltsan alta emanda dauden foku eta kutsatzaileei buruzko datuak baino ezin izango dira bete, betiere unitate bat esleituta badute.

### *Emisioen kontrolerako datuak betetzeko pantaila*

Kontuan hartzeko datuak honako hauek dira, besteak beste:

- Goiko ezkerreko eremuak nahitaez bete behar dira.
  - Txostenaren erreferentzia: txostenaren kodea ipini behar da. Lehendik aurkeztuta dauden txostenen kodeak ez errepikatzea garrantzitsua da, aplikazioan akatsik gerta ez dadin.
  - IKEa: idatzi IKEaren izen laburra. IKE bakoitzak beti izen bera erabiltzea komeni da.
- Beste errenkada bat gehitzeko, “Berria” botoiaren gainean klik egin behar da.
- Errenkada bat kopiatzeko, hautatu errenkada bat eta egin klik “Kopiatu” botoiaren gainean.
- Errenkada bat ezabatzeko, hautatu errenkada bat eta egin klik “Ezabatu” botoiaren gainean.
- “Utzi” botoiaren gainean klik eginez gero, taula soilik irakurtzeko egoerara itzuliko da eta egin ahal izan diren aldaketak ez dira gordeko.
- Unitatea ezin da hautatu, AZPan adierazitakoa txertatzen baita lehenetsita. AZPan ez badago alta emandako unitaterik, sartu egin beharko da, emisioen kontrolak aldeaz aurretik sartuta.

### 3.1.3 Zenbait errenkada zirriborro-egoeran dituen txosten bateko datuak txertatzea

Errenkada berriak gehitzeko, edo lehendik informazioa txertatuta duen txosten batean errenkadak aldatzeko, "Zirriborroa" egoeran baldin badago, "Txosten erreferentzia" zutabearen beheko aldeko goitibeherako zerrendatik txostena aukera behar da alde zurretik, eta gero "Txertatu datuak". Horri esker, emisioen kontrolen zerrenda-taula formatu editagarria aldatuko da, eta datu berriak sartzeko edo lehendik sartutakoak aldatzeko aukera izango dugu.

**Zentroko Emisioen Kontrola**  
Zentroko Emisioen Kontrol Zerrenda

Bilatu:

Fokua	Kutsatzailea	Betetzen du	Med1	Med2	Med3	Unitatea	Emaria (Nm3/h)	Emari masikoa (kg/h)	Orduak, urteko	Urtea	ECA	Txosten Erreferentzia	Egoera
0100031904-2	PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	Bai	15	15	15	mg/Nm3	15000	12	1500	2015	ATISAE	2015/15	Presentado [eu]
0100031904-1	PARTÍCULAS SÓLIDAS INERTES	Bai	50	51	52	ppm	0	0		2016	SFG	SFG-02-2016	Borrador [eu]
0100031904-1	OXIDOS DE NITROGENO	Bai	200	200		ppm	0,0001	0,0001	2	2016	SFG	SFG-02-2016	Borrador [eu]
0100031904-2	PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	Bai	50	50	50	mg/Nm3	1	1	1	2016	SFG	SFG-02-2016	Borrador [eu]
0100031904-2	PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	Bai	15	15	15	mg/Nm3	1500	15	1500	2015	SFG	SFG-01-2016	Presentado [eu]
0100031904-2	PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	Bai	2	2	2	mg/Nm3	2000	2	200	2015	SFG	SFG-01-2016	Presentado [eu]
0100031904-1	PARTÍCULAS SÓLIDAS INERTES	Bai	125	200	25	ppm	256	0,3	152	2014	SFG	SFG-2014-00256	Borrador [eu]
0100031904-1	PARTÍCULAS SÓLIDAS INERTES	Ez	150	269		ppm	256	0,1	152	2014	SFG	SFG-2014-00256	Borrador [eu]
0100031904-1	OXIDOS DE AZUFRE	Bai	15	200	190		2350	2	1547	2015	SFG	SFG-2015-12	Borrador [eu]
											Denak	Denak	

Aurrekoa 1 Hurrengoa

INF01 txostena hautatzea, aldatzeko

**Zentroko Emisioen Kontrola**  
Zentroko Emisioen Kontrol Zerrenda

Txosten Erreferentzia: SFG-02-2016  
ECA: SFG

	Fokua	Kutsatzailea	Betetzen du	Med1	Med2	Med3	Unitatea	Emaria (Nm <sup>3</sup> /h)	Emari masikoa (kg/h)	Orduak, urteko	Urtea
<input type="radio"/>	0100031904-1	PARTICULAS SOLIDAS INERTES[EUS]	Bai	50	51	52	ppm	0	0	0	2016
<input checked="" type="radio"/>	0100031904-1	OXIDOS DE NITROGENO[EUS]	Bai	200	200		ppm	0,000	0,000	2	2016
<input type="radio"/>	0100031904-2	PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	Bai	50	50	50	mg/Nm <sup>3</sup>	1	1	1	2016

Kopiatu Ezabatu Berria Gorde Utzi

Beheko aldeko goitibeherako zerrendatik INF01 txostena hautatu dugunez 1 pantailan, taula editagarri bihurtu da eta INF01 txosteneko datuak agertzen ditu, emisioen kontrolak kudeatzeko aukera ematen duela.

### 3.2 Datuak sartzea .csv fitxategiaren bitartez

Emisioen kontrolak gehitu daitezke modu masiboan, "Datuak inportatu" botoiari esker. Beste pantaila batera eramango gaitu, eta han csv luzapena duen fitxategi bat hautatzeko aukera izango dugu; "Erantsi" botoian klik eginez gero, datuak sisteman txertatuko dira.

**Zentroko Emisioen Kontrola**  
Zentroko Emisioen Kontrol Zerrenda

Bilatu:

Fokua	Kutsatzailea	Betetzen du	Med1	Med2	Med3	Unitatea	Emaria (Nm3/h)	Emari masikoa (kg/h)	Orduak urteko	Urtea	ECA	Txosten Erreferentzia	Egoera
0100031904-2	PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	Bai	15	15	15	mg/Nm3	15000	12	1500	2015	ATISAE	2015/15	Presentado [eu]
0100031904-1	PARTÍCULAS SÓLIDAS INERTES	Bai	50	51	52	ppm	0	0		2016	SFG	SFG-02-2016	Borrador [eu]
0100031904-1	OXIDOS DE NITROGENO	Bai	200	200		ppm	0,0001	0,0001	2	2016	SFG	SFG-02-2016	Borrador [eu]
0100031904-2	PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	Bai	50	50	50	mg/Nm3	1	1	1	2016	SFG	SFG-02-2016	Borrador [eu]
0100031904-2	PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	Bai	15	15	15	mg/Nm3	1500	15	1500	2015	SFG	SFG-01-2016	Presentado [eu]
0100031904-2	PARTÍCULAS SÓLIDAS TOTALES (PST)	Bai	2	2	2	mg/Nm3	2000	2	200	2015	SFG	SFG-01-2016	Presentado [eu]
0100031904-1	PARTÍCULAS SÓLIDAS INERTES	Bai	125	200	25	ppm	256	0,3	152	2014	SFG	SFG-2014-00256	Borrador [eu]
0100031904-1	PARTÍCULAS SÓLIDAS INERTES	Ez	150	269		ppm	256	0,1	152	2014	SFG	SFG-2014-00256	Borrador [eu]
0100031904-1	OXIDOS DE AZUFRE	Bai	15	200	190		2350	2	1547	2015	SFG	SFG-2015-12	Borrador [eu]

Aurrekoa 1 Hurrengoa

**Aukeratutako zentroak**

2 elementuak bilatua(k), elementuak guztiak erakusten. [Iragazi](#)

1 orri

NIMA	Sozietatearen izena	Izena	IFK	Herriadea	Probintzia	Udalerrria	Helbidea
0100031904	Corpprivado_siete s.a.	CENTRO DE PRUEBAS_SFG	A77223345	España	Araba	Zuia	KALE NAGUSIA
0100031764	Entidaddos s.a.	prueba	B95399473	España	Araba	Vitoria-Gasteiz	Donostia-San sebastian

**Zentro hautatua**

Erakunde                   A77223345 - Corpprivado\_siete s.a.  
Zentroa                    0100031904 - CENTRO DE PRUEBAS\_SFG

**Emisioen Datu Kontrola inportatu**

Informazioa kargatzeko garaian arazorik izan ez dadin, .csv fitxategia behar bezala betetzea komeni da; 13 zutabe ditu, eta denak dira nahitaez betetzekoak, Med2 eta Med3 zutabeak izan ezik.

NIMA	Fokua	Kutsatzailea	Txosten Erref.	ILEa	Betetzen du	Med1	Med2	Med3	Emaria	Emari masikoa	Orduak urteko	Urtea
0100002478	0100002478-15	40143	INF_JAVI_1	ECA_JMV	BAI	20	23	21	950	0,33	300	2015
0100002478	0100002478-15	60103	INF_JAVI_1	ECA_JMV	EZ	350	123	100	501	0,15	200	2015
0100002478	0100002478-15	20102	INF_JAVI_1	ECA_JMV	-	350	123	100	501	0,15	300	2015

Adibidea: .csv fitxategi bat nola bete

#### Bete beharreko zutabeak

- **NIMA:** datuak kargatuko diren zentroaren NIMA.
- **Fokua:** informazioa igoko den fokuaen kodea.
- **Kutsatzailea:** informazioa igoko den kutsatzailearen kodea. Dokumentu honen eranskinean dago kutsatzaile bakoitzaren kodeen zerrenda.
- **Txosten Erref:** kargatu beharreko txostenaren kodea. Garrantzitsua da txosten berak kode bera izatea gelaxka guztietan, akatsik gabe. Halaber, lehendik aurkeztuta dauden txostenen kodeak ezin dira errepikatu, aplikazioan akatsik gerta ez dadin.
- **Betetzen du:** neurketak aplikatzen zaion muga-balioa betetzen ote duen (dagokion ziurgabetasuna kendu ostean):
  - BAI:** muga-balioa betetzen du.
  - EZ:** muga-balioa ez du betetzen.
  - “-“:** ezin da zehaztu betetzen duen ala ez duen betetzen.
- **Med1, Med2 eta Med3:** foku horretako kutsatzaile horren kasuan egin diren hiru neurketen emaitzak dira. Ziurgabetasuna kendu gabe sartuko dira, baina dagokion O<sub>2</sub>-ren ehunekora zuzenduta, hala badagokio. Med2 eta Med3 datuak ez dira derrigorrez sartu behar neurketa bakarra egin zaien kutsatzaileen kasuan. Nabarmendu behar dugu fitxategi honetan ez dela adierazten kutsatzaileak zer unitatetan neurtu diren, zeren unitatea zentro horretako AZPan adierazitakoa baita. Hortaz, hemen sartuko diren datuek bat etorri beharko dute unitate horrekin.
 

**Nota:** neurketaren emaitza detekzio – muga baino txikiagoa denean, detekzio – mugaren balioa sartuko da.
- **Emaria:** baldintza normaletan eta oinarri lehorrarekin egindako emari-neurketen batez besteko balioa (baimenean edo indarreko araudian besterik xedatu ezean).

- **Emari masikoa:** kutsatzailearen karga masikoko emisioen batez besteko balioa, kg/h-tan.
- **Orduak urteko:** fokuak urteko zenbat orduz funtzionatzen duen adieraziko da.
- **Urtea:** neurketak zer urtetan egin diren zehaztu beharko da.

.csv fitxategia betetzeko garaian, hauek dira egin daitezkeen akatsak:

- Garrantzitsua da 0 zifraz hasten diren datuen kasuan (esate baterako, Arabako zentro bateko NIMA bat) 0 horri eustea, errorea eman ez dezan (gelaxkak "testua" formatuan egon behar du fitxategiak 0 hori automatikoki ezaba ez dezan).
- .csv fitxategian ezin da ";" motako karaktererik erabili, ezta "orga-jauziak" (enter) ere.
- Zentro horretako AZPan foku horri alta eman ez bazaio, kutsatzaile zehatz horrekin eta unitate zehatz batekin, igoera ere ez da ongi aterako.
- Neurketen emaitzak sartzean, dezimalak bereizteko koma (,) erabili behar da, ez puntua (.).

Txantiloia behar bezala txertatu ostean, zentro zehaztetako poltsetan sartzea komeni da, datuak benetan kargatu direla egiaztatzeko. Datuak "Zirriborroa" egoeran egongo dira, IKE txostena aurkeztu arte (4. puntuan zehaztutakoari jarraiki).

### 3.3 Datuak Excel-era esportatu

Pantailan dauden emisioen kontrolerako datuak Excel fitxategi batera esporta daitezke. Horretarako, "Esportatu" botoiaren gainean egin behar da klik. Prozesu horren bitartez, pantailan dauden datuak esportatuko dira. Hortaz, IKEari eta/edo txostenari dagozkion goitibeharakoetan balioak hautatu baldin baditugu, sortuko den Excela gure iragazkiekin bat etorriko da.

## 4 IKE txostena e - DMA Eskaeraren bidez bidaltzea

Datuak "Emisioen Kontrola" poltsan sartu ostean, dagokion IKE txostena bidaltzeko izapide bat egin behar da e - DMA Eskaeraren bidez (beste edozein AKDJ izapide bezalaxe, pantaila zehatz bat izanik aldea).

e- DMA Eskaera bat nola egin behar den honako gida honetan dago azalduta:

- "Sortu e - DMA Eskaera berria" atala, "Ingurumenari buruzko izapide elektronikoen Gida".

Laburpen gisa:

1. **e - DMA Eskieran sartu, eta markatu "Sortu eskaera"**
2. **Hautatu SEKTOREA: AIREA, eta PROZEDURA, dagokiona.** Honako prozedura hauetan IKE txostena bidali behar da:
  - a. AKDJ: Hasierako IKE txostena bidaltzea (baimenak)
  - b. AKDJ: Hasierako IKE txostena eskatzen duen jakinarazpena (jakinarazpenak)
  - c. AKDJ: Aldizkako IKE txostena bidaltzea (bai baimenak, bai jakinarazpenak)

Hasierako IKE txostenen kasuan, AKDJ instalazioak berak dira txostenak bidaltzearen erantzule; aldiz, aldizkako IKE txostenen kasuan, IKEek bidali behar dituzte.

3. **Hautatu aurkezten ari den txostena:** pantaila hau IKE txostena bidaltzeko prozeduretarako berezia da, eta aurkezten ari den txostenaren kodea hautatu behar da bertan. "Emisioen Kontrola" poltsan errenkadak zirriborro-egoeran dituzten espedienteak hautatzeko aukera emango du. Era berean, "Neurketarik gabe konfinatutako fokoetan" aukera ere badago; aurkezten ari den IKE txostenean konfinatutako fokoetan egindako neurketei buruzko daturik ez badago soilik hautatu behar da (adibidez, neurketa guztiak immisiokoak izatea...):

elementua bat bilatua.

1 orri

	Gizarte arrazoia	IFK	Deitura	Alta data	Baja data
<input checked="" type="radio"/>	Corpprivado_siete s.a.	A77223345	CENTRO DE PRUEBAS_SFG	2016-03-07	

4. **Nahitaezko dokumentu bat eranstea:** "Emisioen Kontrolean" txertatu ditugun datuak biltzen dituen IKE txostena, poltsa horretan txertatu dugun txosten-kode bera duela. Dokumentuak PDF formatuan egon behar du. Eranskinik baldin badu, edo arrazoiren batengatik dokumentu gehiago erantsi nahi izanez gero, dokumentu gehigarrien bitartez egin daiteke, baina nahitaezko dokumentuak soilik izango du zuzeneko sarbidea "Emisioen Kontrola" poltsatik. Erantsi beharreko dokumentua hautatu ostean, "Dokumentuak finkatu" egin behar dira eta, eskaerarekin aurrera jarraitu aurretik, dokumentua lgota: ok agertu arte itxaron beharko dugu.
5. **Posta elektronikoko bi helbide adieraztea.** Administrazioak jakinarazpen, ebazpen edo zuzentzeko errekerimendu bat egiten duenean IKSeeM aplikazioan, hemen adierazten diren helbide elektronikoetara ohartarazteko mezu elektroniko bana iritsiko da, arduraduna IKSeeM aplikazioan sar dadin jakinarazitakoa kontsultatzeko.
6. **Eskaera sinatzea eta aurkeztea.** Sinatzeko garaian, baliteke arazo informatikoak sortzea, besteak beste, "Java ez dago eguneratuta". Kasu horretan, "Zuzenean"

012 telefono-zenbakira dei daiteke EAetik (Euskaditik kanpo, telefono-zenbakia: 945 - 018000) eta IKS zerbitzuarekin harremanetan jartzeko eskatu.

e-DMA Eskaera aurkeztu ondoren, espedientea “Nire Espedienteak” atalean geratuko da, Hasita egoeran, eta espediente-kode bat esleituko zaio. Une horretan, “Emisioen Kontrola” poltsara itzuliz gero, aurkeztu berri dugun txostenaren errenkadak “Aurkeztuta” egoeran daudela ikusiko dugu, “Zirriborroa” egoeran egon beharrean, eta erantsitako pdf-rako zuzeneko sarbidea dutela. Errenkadak “Aurkeztuta” egoeran daudela, ezin dira aldatu; beraz, zenbakiren bat gaizki dagoela konturatuz gero, Airea Zerbitzuarekin harremanetan jarri behar da haiek zuzen dezaten.



## 5 ERANSKINA: KUTSATZAILEEN KODEEN TAULA

S99DTT01_KOD	S99DTT01_DESK	Iruzkina
060103	PARTIKULEN GUZTIZKOA (PG)	
030403	KARBONO MONOXIDOA	
030402	NITROGENO OXIDOAK	NO-ren eta NO <sub>2</sub> -ren arteko batura, NO <sub>x</sub> moduan adierazita
030407	SUFRE DIOXIDOA	
090100	OPAKUTASUNA	
040406	KARBONO ORGANIKOAREN GUZTIZKOA (KOG)	KOG eta KOL, KOG edo KOLG moduan adierazita. Konposatu berezi bat baldin bada, adierazi konposatu hori
030401	SUFRE OXIDOAK	Errekuntza ez den prozesuetan sortutakoak
030206	AZIDO KLOORHIDRIKOA	Hidrogeno kloruroa (HCl)
030202	KLOROA	Kloro molekularra (Cl <sub>2</sub> )
030210	HIDROGENO FLUORUROA (HF)	Azido fluorhidrikoa
040146	AMINAK	Adierazi oharretan amina espezifikoko zehatzak
020102	MERKURIOA ETA HAREN KONPOSATUAK	
020303	KROMOA ETA HAREN KONPOSATUAK	

S99DTT01_KOD	S99DTT01_DESK	Iruzkina
020312	ZINKA ETA HAREN KONPOSATUAK	
020400	METALAK	Metalen taldeetarako: adierazi oharretan gehitutako metal espezifikoak
030207	AMONIAKOA	
030205	AZIDO SULFHIDRIKOA	Hidrogeno sulfuroa (H2S)
090200	Usainak	
040143	KONPOSATU ORGANIKO HEGAZKORRAK	
050107	PCDD + PCDF (DIOXINAK + FURANOAK)	
040131	FENOLA	
040120	FORMALDEHIDOA	
040228	TETRAKOROETILENOA (PERKOROETILENOA)	
040121	2-FURIALDEHIDOA (FURFURALA, FURFUROLA)	
030203	AZIDO ZIANHIDRIKOA	
020304	ERRAZ DISOLBATZEN DIREN ZIANUROAK	Zianuroak CN moduan adierazita
100000	Beste batzuk	